

13.artikuluaz hitz egiten hasi aurretik, **2012ko berratzikipen prozesua** zela eta hezitzaileak zerrendatzeko erabilitako **zerrenda bateratuaren kontra agertu ginenez**, artikulua honetan gure irizpideak islatu nahi izan ditugu, honek aurrerantzean eragin negatiborik izan ez dezan.

Hona hemen **STEE-EILAS** Sindikatuak 13.artikuluaren inguruan duen proposamena eta mahai negoziatzaileira eramango duena:

13.artikulua.- MUGIMENDUEN ETA AMORTIZATUEN BITARTEZ EMANDAKO / SORTUTAKO ATXIKIPENAK

Artikuluko mamiaz hitz egin aurretik, zehaztapen batzuk egitea beharrezkoa ikusten dugu:

- Bi langile mota besterik ez daude Haurreskolak Partzuergoan: Behin betikoak (LEPan lanpostu finkoa lortzen dutenak) eta Behin behinekoak (ordezkoen zerrendan dauden guztiak).
- Haurreskolak Partzuergoan Kontratu mota desberdinak egon arren (lan metaketak, LEPartekoak, ordezkapen arruntak,...), behin behineko langilea bazara, ordezkoen zerrendaren arabera ordenatua egongo zara.
- Suprimitua izatea eta mugitua izatea desberdina da, Lehengo kasuan esleipenei dagokio eta bigarrenean berriz ikasturtean zehar emango diren egoeren ondoriozko aldaketei buruz ari gara.
- Lanpostuaren titularra hartuko da kontuan artikulua honi dagozkion egoeretan, beraz une horretan langile titularra edozein arrazoirengatik ordezkaturia bada, ordezkoaren egoera titularraren baldintzen menpe egongo da edozein kasutan.

13.1 BEHIN BEHINEKO ATXIKIPENA BEHIN BETIKO LANGILEENTZAT (mugimenduak)

Lanpostuaren titularra den langilea, Haurreskola zehatz bati atxikita egon arren, sor daitezkeen egoerak edo arrazoiak bultzatuta behin behinean, beste batera atxiki ahal izango da edo atxikipen modua aldatu ahal izango da.

Honako arrazoi hauek izanez gero, langilearen atxikipena aldatzeko aukera izango du zuzendaritzak behin behinean: antolaketa arrazoiak, beharretara egokitu beharra, eta zerbitzuaren kalitatearekin lotutako arrazoiak. Aldaketa horiek egiteko, hilabete lehenago abisatu behar da, baldin eta larrialdiek edo zerbitzua eman beharrek hala eskatuta aldaketa epe laburragoan egin beharra suertatzen ez bada, behintzat. Eta beti ere, langileari hiru egun lehenago abisatuko zaiolarik.

Langile titularrak bere haurreskolara bueltatzeko eskubidea izango du baldin eta, jatorrizko haurreskolan matrikulazio igoeraren ondorioz beharra suertatzen bada.

Behin-betiko langile baten plaza, edozein kasutan, betiko desagertuko balitz, behin-behineko atxikipena lortuko du beste haur-eskola batean, antzinasuna galdu gabe, eta hurrengo leku-aldatze lehiaketan behartuta parte hartuko du.

13.2. ATXIKIPENA BEHIN BEHINEKO LANGILEENTZAT

13.2.1. MUGIMENDUAK IKASTURTEAN ZEHAR

Lanpostuaren titularra den langilea, Haurreskola zehatz bati atxikita egon arren, sor daitezkeen egoerak edo arrazoiak bultzatuta behin behinean, beste batera atxiki ahal izango da edo atxikipen modua aldatu ahal izango da.

Honako arrazoi hauek izanez gero, langilearen atxikipena aldatzeko aukera izango du zuzendaritzak behin behinean: antolaketa arrazoiak, beharretara egokitu beharra, eta zerbitzuaren kalitatearekin lotutako arrazoiak. Aldaketa horiek egiteko, hilabete lehenago abisatu beharko da, baldin eta larrialdiek edo zerbitzua eman beharrak hala eskatuta aldaketa epe laburragoan egin beharra suertatzen ez bada, behintzat. Eta beti ere, langileari hiru egun lehenago abisatuko zaiolarik.

Langile titularrak bere haurreskolara bueltatzeko eskubidea izango du baldin eta, jatorrizko haurreskolan matrikulazio goeraren ondorioz beharra suertatzen bada.

13.2.2. AMORTIZATUAK

Lanpostuaren titularra den langilea, Haurreskola zehatz bati atxikita egon arren, hurrengo ikasturteari dagokion matrikulazioaren aurreikuspenak kontuan hartuta behin behinean, beste batera atxikitua izango da esleipen prozesuaren bitartez.

13.3. LANGILE TITULARRENTZAKO IRIZPIDEAK MUGITUAK EDO AMORTIZATUAK IZANGO DIREN EGOEREN AURREAN

Irizpide hauek erabiliko dira beste haurreskola batera mugituak edo amortizatuak izango diren pertsonak aukeratzeko:

- 1.-Borondatezko eskaerak onartuko dira.
- 2.-Behin-behineko kontratua duten langileak, ordezkoen zerrendaren arabera ordenatuak izango dira.
- 3.-Behin-betiko kontratua duten langileak hurrengo irizpideen arabera mugituak izango dira :
 - Haur-eskola horretan antzinasuna, LEPa duenetik. Eta behin behineko atxikipenaren bitartez une horretako lanpostua lortu dutenen kasuan, behin betiko lanpostua lortu zuen arteko antzinasuna gehituko zaie.
 - LEParen deialdiaren ordenaren arabera (zaharretik berrienera).
 - LEParen emaitza (kalifikazio altuenetik baxuenera).

Hala ere, Partzuergoak kontuan hartuko ditu egokitzapenaldiak eta momentuko mugimendu hauek ekidindo dituen haurrengan eraginik ez izateko

13.4. DESADOSTASUNAK

Hezitzaileek Partzuergoak hartutako mugitzeko edo amortizatzeko erabakiarekiko desadostasuna adierazten badute, auzia Batzorde Parekidean eztabaidatuko da.

13.5. SALBUESPENAK

13.5.1. azaroaren 16ko 215/04 Dekretuko bigarren, hirugarren eta laugarren xedapen gehigarrietan ezarritakoaren arabera kontratatu ez den pertsonalak borondatez zentroz aldatzeko aukera izango du, Partzuergoak horretarako ezartzen duen lekualdatze lehiaketaren bitartez.

13.5.2. HISTORIKOEKIN AKORDIOA

13.5.3. INTEGRAZIOEN BITARTEZ SORTU DAITEZKEEN AKORDIOAK

HAURRESKOLAK PUBLIKOAK DOAKOAK ETA UNIBERTSALAK!!!

STEE-EILAS SINDIKATUA
2013-10-29

ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	NAFARROA
Eulogio Serdán, 5 (behea) Tf: 945 14 11 04 Faxe: 945 14 43 02 araba@stee-eilas.org	Nikolas Alkorta, 3 (Zabalburu) Tf: 944 10 02 98 Faxe: 7944 10 13 60 bizkaia@stee-eilas.org	Baso-bixi, 30-34 (atzealdea) Tf: 943 46 60 00 Faxe: 943 45 36 27 gipuzkoa@stee-eilas.org	Descalzos, 72 (behea) Tf: 948 21 23 55 Fax: 948 22 97 90 nafarroa@stee-eilas.org
EHU-UPV Araba 945013397 stee-eilas.ara@ehu.es	EHU-UPV Bizkaia 946012435 stee-eilas.biz@ehu.es	EHU-UPV Gipuzkoa 943018436 stee-eilas.gip@ehu.es	